



EAE-ANVko Goitia komandatea



Guda Zibila Barakaldon

Egun eguzkitsu eta lasai hasi zen 1937ko ekainaren 22a Barakaldon. Ez zirudien gerratea hasia zenik. Foru Pasealekuko txorien txioek besterik ez zuten eteten baretasun hura. Baina bat-batean hegaldiari ekin zioten izuak jota, kale hasieratik zetozen zaratek ernegatuta. Soldaduak hasi ziren kalean barna sartzen, milizia-noak. Eusko Gudarostea osatzen zuten boluntarioak ziren, Gordexola batailoiko gudariak.

Francok Labe Garaiak eskuratu eta gerratea arinago irabaziko zuen beldurrez, Eusko Jaurlaritzak hauek suntsitzeko agindua eman zuen. Gordexola Batailoia, ordea, berauek babesteaz arduratu zen gerra amaiera aldera. Are gehiago, Barakaldoko enpresa bakar batek ere ez zuen bonbardaketarik pairatu gerrateak iraun zuen bitartean¹; hainbestearino, non jendea fabriketan bertan sartuz babesten baitzen erasoetatik. Labe Garaiek, beraz, zutik iraun zuten, eta Francok osorik eskuratu zituen.

Hainbat teoria desberdin daude honen guztiaren inguruan, eta behar den bezala aztertuko ditugu ondorengo lerroetan. Batzuen esanetan, Gordexola batailoiko soldaduek Francori egoera onean eskaini ahal izateko babestu zituzten Labe garaiek UGT, CNT eta PSOEek bidalitako soldaduen erasoengandik ekainaren 21 eta 22a arteko gau hartan. Eztabaida asko dago, ordea, baieztapen honen inguruan, gertaera honi buruz dauden testu eta testigantza anitzen kontraesanek erakusten duten moduan.

Gau guztian zehar Labe Garaiak defendatu ostean, Gordexolako gudariak Herriko Enparantzara abiatu ziren eguna argitzen hasi bezain laster. Bertan zeudela, batzuk urduritzen hasi ziren, eta beste batzuk euren familiak agurtzera joan ziren, denbora luzez elkar berriz ikusiko ez zutelakoan. Sortu zen zarataren ondorioz, bizilagunak esnatu egin ziren. Leihotara hurbildu ziren batzuk gudariak euren armak zuhaitzetan izkutatzeko ere ikusi zituzten. Beste batzuk *traidore* hitza ohiukatzen hasi zitzaizkien.

Oihu haiek egun batzuk lehenago Eustaquio Cañas alkate jaunak udaletxeko balkoitik eta megafoniatik botatakoak ekartzen

zizkien gogora soldaduei. Soldaduak eta herritarrak adoretzeko asmoz oihukatzen ziren faxistei. Orduan Dolores Ibarrurik Madril-en erabilitako "*Ez dira pasako!*" oihuak kementzen zituen gudariak borrokan jarraitzeko; orain, aldiz, *traidore* hitza besterik ez zuten entzuten, eta eurei zuzenduta zihoan.

Gudariei leihotatik ohiu egiten zieten berberak izan ziren italiarren etorreraz jabetzen lehenak. Antza denez, Euskadiko gobernuak tratua egin zuen etsaiekin: euren tropak zigorrak gabe gelditzearen truke, enpresak deuseztatu gabe emango zizkion italiarrei. Tratua betetze aldera, Gordexolako gudariak italiarren eskuetan utzi behar izan zituzten bai herria eta baita babestutako enpresak ere.

Italiarrak Foru Pasealekuan agertzen hasi orduko, korri egiteari ekin zioten hainbat gudarik. Beste batzuk, aldiz, bertan gelditu ziren herriko giltzak italiar komandanteari emateko asmoarekin. Askok azken unean erabaki zuten herritik ihes egitea, Santander aldera joz. Baina Trapagarango bidean, hegazkin frankisten bonbardaketek zauritu eta hil zituzten gehienak.

Italiar guztiak Herriko Plazan zeudela, Urkullu komandantea, Gordexola batailoiko burua, italiar buruzagiaren ondora gerturatu zen. Hainbat berba eta agur militarren ondoren, Barakaldo eman zien italiarrei. Italiarrek tratua mantentzeko asmoa zuten, soldaduak aske utziz, baina Francok akordioa baliogabetu eta Gordexola batailoia osatzen zuten gudari gehienak Medinako zigor zelaira eraman zituzten.

Baina, nola hasi zen guztia? Zer gertatu zen Barakaldon gerrateko hamaika hilabeteetan zehar? Hil edo zauritu al zuten eskuineko politikaririk tarte hartan? Nolako izan zen eguneroko bizitza gure herrian? Zer egiten zuen jendeak bonbardaketak gertatzen zirenean? Galdera hauek guztiak erantzuten saiatuko gara hurrengo orrialdeetan zehar.

Aipatzekoa da, bestalde, oso zaila izan dela informazio hau guztia bilatzea. Gure herriko historiari buruz aritzen diren liburu anitz badaude ere, oso gutxi biltzen dute Guda Zibilaren garaiko informazioa. Badirudi gogoratu nahi ez den garai bati buruz ari garela. Carlos Ibañez berak laburtu zidan arazoa esaldi bakarrean: "*Garai hartaz ez da idazten, inori ez zaiolako interesatzen*". Beraz, informazio eskasia dela eta, garai hartako protagonisten bizipenetan oinarritu dut ikerketa. Honez gain, garaiko prentsa ere informazio iturri garrantzitsua izan da. Hemendik lortutako datuak interpretatu eta erabiltzeko orduan, ordea, kontu berezia izan dut, gehienetan egunkariak jarraitzen duen ildo poli-

¹ Barakaldon 1936ko uztailearen 18tik 1937ko ekainaren 22ra.

tikoaren arabera izan ohi baitira bai bertan agertzen diren berriak eta baita euren tratamendua ere. Hau dela eta, joera ezberdinekiko lotura erakusten duten ahalik eta egunkari gehien bilatu eta aztertu ditut.

BARAKALDOKO EGOERA ERREPUBLIKAREN GARAIAN (1931-1936)

Errepublikaren aldarrikapenak arrakasta handia izan zuen Barakaldon. Udaletxea alderdi sozialistaren esku geratu zen, 1918 eta 1928 artean Barakaldoko alderdi sozialistak eta EAJk bina zinegotzi besterik izan ez zituzten arren.

Garai hartan udaletxean zeuden gainontzeko alderdiek oinarriak politikoa izan ordez, sozialak ziren. Lantegietako ordezkarien alderdiak ziren gehientsuenak. Orconerakoak eta Labe Garaietakoak ziren zinegotzi edota ordezkari gehien zituztenak².

Euskal herriko kasuan, aldiz, iraultza ez zen hain bortitza izan. Udaletxeak okupatzea eta bilerak egitea izan ziren ekintza nagusiak hemen. Kasu honetan, Barakaldoko alkateak, Eustaquio Cañasek, udaletxea zabaldu zien iraultzaileei bertan bilerak egin zituzten. Baina erabakia ez zen doakoa izan. Alkatea bera Granadako gartzelara bidali zuten, eta iraultzan parte hartutako askoren izenak zerrenda berezi batzuetan bildu zituzten. Gerra Zibilaren ostean asko gartzelaratu egin zituzten 1934ko iraultza honetan parte hartzeagatik.

1936. urtea hurbiltzen ari zen heinean, alderdiek Estatuan bezala Barakaldon ere pil-pilean zegoen eztabaidarekin ziharduten: Fronte Popularrarekin⁵ bat egin edo beregandik aldentu. Horretan zeudela, EAEk bere lehen barne zatiketa izan zuen. Alderdi honen zuzendaritzarekin ados ez zeuden hainbat zinegotzi eta kargu talde politiko berri bat sortu zuten *Retuerto* auzoan. Baina, antza denez, guztiek ez zuten ekimen berri hau sortu zedin nahi. 1936ko azaroan, herrian Alvareño izenez ezaguna zen EAEko militantea propaganda banatzen ari zen bitartean tirokatu eta erahil egin zuten Beta tabernaren⁶ atarian. Alderdi sozialistak militanteak izan ziren hiltzaileak, baina hauek atxilotu ordez, hildakoekin zihoazen EAEko gainontzeko militanteak atxilotu zituzten.

Eliztar asko II. Errepublikaren aurka azaldu ziren. Honek, katolikotasun kutsua zuen edozerekiko mesfidantza sorrarazten zuen. Francok elizaren monopolioa eskuratu zuenean erlijio katolikoarekin erlazionatutako gauza oro lotzen zen eskuinarekin



Antza denez, ez dago garaiko udaletzeko konposizio politikoa nolakoa zen erakusten duen testigantzarik. Errepublika garaian EAJ eta alderdi sozialista nagusi izan zirela badakigun arren, ez dugu gainontzeko alderdien datu zehatzik. Esaterako, badakigu 1930ean EAJren baitatik sortutako EAE³ alderdiak nahiko indar handia lortu zuela udaletxean, hirugarren alderdi politiko garrantzitsuen bihurtuz. Herriko alkatea, ordea, sozialista zen, Eustaquio Cañas jauna, hain zuzen.

Egoera politikoa estatukoaren parekoa zen beraz, zaila eta korapilatsua. Eskuin indarrek eta monarkikoen boterea lortzea zuten helburu; ezkerrekoek, aldiz, estatuan aldaketa sakonak egin nahi zituzten. Estatua hasia zen aldatzen, baina ezker taldeek ez zituzten berriztapen hauek begi onez ikusten, behar bezala egiten ari ez zirelakoan baitzeuden. Honenbestez, talde ezkeriak Errepublika burgesaren aurkako iraultza prestatzen hasi ziren.

Egoera erabat aldatu zen 1933an. Urte horretan CEDA-k⁴ lortu zuen boterea, eta aurreko gobernu ezkeriak egindako aldaketa politikoa atzera bota zituen. Atzera pausu honek bultzatuta, ezkerreko indarrek boterearen aurkako iraultza hasi zuten Asturiasen eta Euskal Herrian. Lehenengoari aurre egiteko militar ugari erabili zituen eskuineko gobernuak, baina azkenean Franco Jeneralaren laguntzaz lortu zuten matxina da geldiaraztea. Ipar Afrikako indarren laguntzarekin eta 5.000 hildako eta 25.000 presoren truke lortu zuen Jeneralak egoera baretzea.

1936ko otsaileko hauteskundeetan ez zen ezusteko handirik izan Barakaldon. Fronte Popularrak eskuratu zituen emaitzarik onenak, eta alderdi abertzaleek botoen %23a lortu zuen. EAJk 9 diputatu lortu zituen 1933an baino hiru gutxiago. Gainontzeko eskuineko alderdiek 8 diputatu lortu zituzten, lehen baino bi gutxiago, eta ezker indarrak lehen baino bost gehiago lortu zituen, 7 guztira. EAJk, beraz, galdu egin zuen eskubiko gainontzeko alderdiekin zuen erronka politikoa. Muturreko jarrerak zeuden une batean EAJ neutro mantendu zen. EAEk, ordea, euskal abertzaleen ahotsa Madrilerara helaraztea lortu zuen, hauteskundeetan aurretik Fronte Popularrak sartu baitzen.

Hauteskundeak baino lehen, eta egoera berotzeko asmoz, egunkari ale bereziak kaleratu zituzten. Honen adibiderik garbiena *La Gaceta del Norte* ikus dezakegu. Egunkari honetan, 1936ko urtarrilaren 5ean adibidez, "*Zer ekarriko diete erregeek?*" izenburua zuen artikulu bat argitaratu zen. Bertan garaiko hainbat politikariz hitz egiten da ironia eta umorez. Azañari buruz esaten dute Dimitroffek Fronte Popularrak sartzeko gonbidapena luzatuko ziola, eta gainera Buda bat ekarriko ziotela, hauxe baita jainko faltsuen artean tripa handiena daukana. Miguel Maurari suhiltzaile kotxe bat ekarriko omen diote erregeek. Indalecio Prietori, aldiz, trenen gida internazionala eta Largo Caballeroren neurri errealeko erretratatu sinatu bat oparituko dizkiotela aipatzen dute.

GUDA ZIBILAREN HASIERA

Barakaldon Karmengo jaiak ari ziren ospatzen guda hasi zenean. Militarrek gobernuaren aurka altxatu zirela jakin bezain laster,

2 Datu hauek Carlos Ibañez idazleak dauzka kartila batean idaztirik.

3 Eusko Abertzaleen Ekintza (EAE) Hego Euskal Herriko alderdi politiko bat izan zen, ezkeriarra eta abertzalea. Eusko Alderdi Jeltzalearen joera eskuindarrekin ados ez zeuden kide batzuk (Anakleto Ortueta, Tomas Bilbao, Justo Garate) sortu zuten 1930.eko azaroaren 30ean. Alderdiaren oinarrien artean abertzaletasuna, erlijio loturarik eza, errepublikazaletasuna eta sozialismo demokratikorako joera zeuden. 1936.urteko Gerra Zibilean hiru batailoi izan zituen. Eusko Jaurilaritzako Nekazaritzako saiburu gisa alderdi berriko militante zen Gonzalo Nardiz aukeratu zuten. erbesteko Eusko Jaurilaritzan ere parte hartu zuen EAEk.

4 Confederación Española de Derechas Autónomas eskuin aldeko alderdia hainbat taldek osatzen zuten. 1933.eko hauteskundeetarako sortu zen, ezkerreko gobernuari boterea kentzeko asmoz. 1933.eko hauteskundeetan garaile izan ziren.

5 Fronte Popularrak alderdi ezkeriarren batasun politiko eta estratejikoak zen. Frantziako Fronte Popularrak izan zen oinarri. Leon Blumek zuzendutako alderdi ezkeriak Frantziako hauteskundeak irabazi zituela ikusita, ideia bera Espainian garatu nahi zuten 1936ko hauteskundeetarako. Manuel Azañak zuzendu zuen alderdi berri hau, eta garaipenaren jabe egin ziren.

6 Egungo Udal Euskaltegiaren (garaian EAE alderdiaren egoitza) alboan zegoen taberna.



Gudariak Gernikako Arbolaren aurrean. Iturria: Mikel Martinez Vitores

jendea kamiorietan sartu eta bidean aurkitu zituzten armak biltzen hasi zen. Jaiak, ordea, ez ziren eten. Carlos Ibañezek gogoratzen duen moduan, Parisko *Cucu* eta *On Taiman* antzezlanak izan ziren ekintzen artean.

Gudaren hasiera nahiko kaotikoa izan zen, sindikatuen erresistentziaren buru izatera iritsi ziren arte. Egoera, ordea, tentsio handikoa zen. Alde batetik, Errepublikako gobernuak, jendea lasaitzeko asmoz, guztia kontrolpean zegoela eta estatu kolpea ordu gutxiren buruan bertan behera geldituko zela esan zuen. Baina ez zen egia. Herri askotan militarrek eta Guardia Zibila kolpearekin bat egin eta mugitzen hasiak ziren.

Barakaldoko Guardia Zibilen kuartela itxita gelditu zen. Buruzagiak alkatearekin hitz egin eta Errepublikaren alde zegoela adierazi zion. Dena den, fusilak kuartelean gorde zituzten, eta berauek kargatzeko beharrezko morroiloak udaletxean, zer gerta ere.

Udaletxeak ahalik eta azkarren hasi ziren antolatzen. Uztailaren 20rako bidean ziren frontetarako lehen bolondresak, kamioietan igo eta zeuzkaten arma eskasak eskuan. Askok ziren ezer horberik izan ezean baratzeko tresnak alboan zituztela joan zirenak. Guztiek eskuratu ahal izan zituzten, ordea, gerrarako banatu ziren buzoak.

Gerraren ondorioz hildako lehen barakaldotarra Kiriko izan zen, abizenek Rojo, lurperatzailearen semea zen herriko garbitzaile bat. Legutioko frontean⁷ zendu zen istripuz. Eusko Gudalostean zegoen Barakaldoko beste soldadu batek erahil zuen nahi gabe,

⁷ Legutioko batailak 1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra arte iraun zuen. Bertan, Euzko Gudarostea Araba berreskuratzen saiatu zen. Ofentsiba porrot itzela izan zen, 2500 soldadu inguru hil zituztelarik.

biak ere armak garbitzen ari ziren bitartean. Antza denez, txikitako lagun minak ziren, eta bizirik geratu zenak ez zuen istripu hura ahazterik lortu. Olatzekoetxea zuen abizena, eta gertaeraren ostean erietxe psikiatriko batean sartu behar izan zuten⁸.

ERLIJOAREKIKO MESFIDANTZA

Hasierako nahaste guztiaren artean, gerrate guztian zehar iraungo zuen arazo bat nagusitu zen: armen beharra. Hau dela eta, uztailaren 21ean herriko jendea Salesianoen eskolara abiatu zen oihu eta garrasi artean, fraileek ezkutuan armak gordetzen zituztelakoan baitzeuden. Defentsarako junta osatzen zutenek goardiak bidali zituzten elizgizonak babesteko, eta arazo handiegirik gabe lortu zuten ordena berrezartzea. Esan behar da alkatea eta udaletzeko hainbat langile eskola hartako ikasle ohiak izanagatik begirune bereziz babestu zituztela salestar anaiak. Neurri guztiak hartuta ere, herritarrek eskola arakatzeari lortu zuten, fraileak udaletxean babesten ziren bitartean. Ez zieten armarik topatu, baina anarkistek euren egoitza guztiak bahitu zituzten. Fraileak babesleku barik geratu zirenez, hainbat herritarrek euren etxeak eskaini zizkieten bertan geratu zitezten. Defentsarako Junta arazoa eztabaidatzeko bildu zen, eta hainbat partaidek fraileen heriotza aldarrikatzen zuten, Agirre Lehendakariak jarri behar izan zion konponbidea arazoari Basaldua⁹ idazkariaren eskutik. Kotxe bat bidali zuen salestar anaiak Gobernu Zibilera eramateko, eta handik gutxira lortu zuen fraileak atzerrira bidaltzea, ezin arriskutik urrun.

Armamendua eskuratzeko beharra izan zen, itxura batean, herritarrek fraileen egoitzari eraso egiteko arrazo nagusia, baina ezin dugu ahaztu bazirela susperraldi hura bultzatzen zuten beste hainbat faktore ere. Alde batetik, gogoan izan behar da eliztar asko Bigarren Errepublikaren aurka azaldu zirela, eta honek katolikotasun kutsua zuen edozereko mesfidantza sorrarazten zuen. Honez gain, Francok eliza katolikoaren monopolioa eskuratu zuen, eta ondorioz, eremu errepublikarretan erlijio katolikoarekin erlazioz gertatutako gauza oro lotzen zen eskuinarekin.

Honen guztiaren harira, Ana María Cermeño Lutxanako auzokideak bizipen bat ekarri zigun gogora. Oso emakume sinistuna zen Ana Mariaren ama, eta, beraz, irainak irain, egunero joaten zen mezetara. 1936ko bukaera aldera, ama haurdun zegoela, ohi bezala mezetara zihoazelarik, bere auzokidea zen gizon batekin egin zuten topo. Hau irainka hasi, euren gaitasuna hurbildu eta ostikoka hasi zitzaion Anaren amari. Emakume lurrera erori zen, baina gizonak ez zion jipoitzeari utzi. Honen ondorioz, umea galdu zuen. Gerratea amaitu zenean, berriz topatu ziren Ana eta bere ama gizon berarekin. Oraingoan, ordea, bularraldean geziak eta uztarria josirik zeuzkan alkondara urdina zeraman soinean. Gizona hurbildu egin zitzaion, eta gerra garaian gertatutakoa azaltzen saiatu zen. Francoren aldekoa zen, antza, baina gudari eta milizianoen aurrean disimulatu eta haien konfiantza irabazteko egin omen zuen egindakoa. Barkamena eskatu arren, bai Anak eta baita bere familia osoak ezin izan zuten pasarte hura inoiz ahaztu¹⁰.


HERRITARREN BABESA

Gerratea hasi bezain laster ekin zioten antolatzeari alderdi politiko eta sindikatuek. Uztailaren 29an bildu ziren udaletxean taldeetako arduradunak herriaren defentsa antolatzeko eta behin

⁸ Carlos Ibañezek kontatutako istorioa.

⁹ Basaldua Agirreren idazkaria izateaz gain, Salesianoen ikasle ohi ere bazen, eta horrexegatik arduratu zen arazo honetaz.

¹⁰ Ana María Cermeño 1925ean jaio zen Lutxana auzoan. Elkarrizketa 2001ean izan genuen bere etxean.



Arma sortzeko Eusko Jaurlaritzak bereganatutako tailerra. Iturria: Mikel Martínez Vitores

behineko 150 goardia jartzea erabaki zuten. Ondorengoak taldeen arabera kopuruak datuak¹¹ dira: *Casa del Pueblo* 33, CNT 24, PSOE 19, *Acción Nacionalista Vasca Autónoma* 18, EAJ 17, SOV (Solidaridad de Obreros Vascos) 14, EAE 10, *Partido Comunista* 8, *Unión Republicana* 6 eta *Izquierda Republicana* 3.

Bolondresak aukeratu ostean herria zaintzeko txandak egiteko garaian arazoak sortu ziren. Alde batetik, Alonsotegi auzoak ez zuen goardiarik, eta EAJren sekzioak udaletxean salatu egin zuten gertaera. Bestalde, irailaren 3an udaletxean egindako batzar batean *San Vicente* auzoan goardia kopuruarekin zerikusia duen arazo bat dagoela aipatzen da. Egunean zehar egiten ziren hiru zaintze txandetan hamabi guardia zeuden txanda bakoitzeko. Gauekoan aldiz, sei goardia besterik ez zeuden.

Arazoak, ordea, herritik kanpo ere eztabaidatu ziren. Barakaldok herriko defentsarako Bilbok baino 50 guardia gehiago zituela eta kezkatuta zegoen gobernadorea, eta CNTko ordezkariari adierazi zion arazoa. Barakaldoko defentsa juntak herria Bilbo baino askoz ere handiagoa zela argudiatu zuen hainbeste goardia izatea justifikatzeko. Baina orduan gobernadorea kezkatzen zuen beste arazo bat azaldu zen, izan ere, guardiek soldata bat aldarrikatu zuten. Frontean zeuden soldaduek kobratzen zuten, eurek ere hor-tarako eskubidea zutela zioten¹². Barakaldo defendatzen zuten bitartean ezin zuten euren lanarekin jarraitu, eta beraz, ez zuten diru iturri finkorik. Hau ekiditeko, abuztuaren 15ean Gerra Ministerioak zirkular bat atera zuen guardia hauen soldata eguneroko 10 pezetetan finkatuz. Honez gain, lehen unean izen emandako guardiek eguneroko bazkaria ere ziurtatua izan behar zuten.

Arestian aipatu bezala, arma lortzea behar larria bilakatu zen, bai gerrarako eta baita herria babesteko ere. Zailtasun handiak zeudenez, udaletxea herrian zeuden arma guztiak bereganatzen saiatu zen lege berri baten bidez. Baina armez gain, beste mota-

tako tresnak ere utzi behar ziren gerrarekin jarraitu ahal izateko. Horren adibide gisa, dokumentatuta dago 1936ko uztailaren 20an Foru kaleko 10. zenbakian bizi zen Virgilio Celada jaunak hainbat arma eta munizio entregatu zituela¹³.

Udaletxeak bilketan lortutako arma ugari erabili zituen herria defendatzeko, xede horrekin euskal gobernari arma eskatzen zizkion bakoitzean erantzun bera jasotzen baitzuen: "*Arma guztiak frontierako behar dira*". Armen arazoa guda guztian zehar mantendu zen, inoiz ez baitziren behar beste lortzen. Gainera, lortutako gehienak ehizarako arma izan ohi ziren, ez gerrakoak. Hau ikusita, Alderdi Komunistak 1936ko abuztuaren 12an Eibarren zeuden arma eskuratzea pentsatu eta eskakizuna egin zion udaletxeari, gobernadoreari helarazi ziezaion. Baina ez zuten erantzunik jaso, abuztuaren 14an beste irtenbide bat aurkitu zuten: Orden Publikorako batzordeak guardiek euren txanda bukatzerakoan arma udaletxean uztea erabaki zuten, hurrengo txandakoek erabiltzeko¹⁴.

Buzoekin lotutako arazorik ere izan zen. Abuztuaren 26an Orden Publikorako Komitearen Batzarrean EAJk guardiek buzorik behar zutenentz galdetu zuen. Eustaquio Cañas jaunak gaiaz arduratzen ari zela erantzun zion EAJko ordezkariari, izan ere, berak guztiz beharrezkotzat jotzen zuen guardiek uniforme bereizgarri bat eramatea. Alde batetik, jendearen errespetua bermatu zezakeen uniformeak, eta bestetik, gaizkiulertzeak ekidin zitezkeen. Izan ere, izan zen bere burua guardia bezala aurkeztu eta herriaren defentsarako beharrak aitzakia bezala jarrita herri-tarrei lapurtu zienik. Etxeetan sartzen ziren lapurtzera, eta kalean zehar zihoan jendeari zeraman janaria kentzen zioten. Arazoa konpontze aldera, Barakaldoko alkateak 1936ko abuztuaren 28an hitzaldi publiko bat egin zuen, ezarri berri zen megafoniari esker herri osoan entzun zena. Hauek izan ziren Cañasen hitzak: "*Une honetatik aurrera, inork ez dio behar bezala identifikaturik ez*

11 BUA: 1856 kutxa, 40. agiria.

12 BUA: 1856 kutxa, 40. agiria. Gaia: 1936ko "Formación del comisariado de orden público con motivo de la sublevación militar".

13 BUA: 1875 kutxa, 40. agiria.

14 BUA: 1856 kutxa, 40. agiria.

doan miliziano bakar bati ere kalean gelditzea, arakatzea edota kotxea bahitzea bahimenduko. Gogoratu milizianoek eta guardiek bereizgarri gorri bat eraman behar dutela udaletxeko zigiluarekin batera, eta patruilen buruzagiek behar dituzten agiri guztiak berarekin eraman behar dituztela. (...) Barakaldoko herria; komite honek badaki aintzakotzat hartu zaitzaketela eta zuen laguntza edukiko duela garai beltz hauetan. Diziiplina oso beharrezkoa da une latz hauetan. Eta horrexegatik, komite honek ez dizkio inori legezkoak ez diren gauzak egiten. Bidezkoak ez diren ekintzak egiten dituztenen etsai izango gara, eta legearen bitartez haiekin bukatuko dugu. (...) Barakaldotarrak, hiritarrak, langileak: Espainiagatik, Euzkadigatik, askatasunagatik, Errepublikaren alde jar gaitezen guztiok zutik!

Abuztuaren 31ean bonbardatu zuten lehenengoz Barakaldo. Hiru izan ziren hildakoak, guztiak zibilak. Herriko etxeen eta kaleen aurka jaurti zituzten bonbak

BONBARDAKETAK

Abuztuaren 31ean bonbardatu zuten lehenengoz Barakaldo. Hiru izan ziren hildakoak, guztiak zibilak. Herriko etxeen eta kaleen aurka jaurti zituzten bonbak. Honen ondorioz, alka-teak hainbat erabaki hartu zituen. Alde batetik, herrian zehar hegazkinen etorreraz abisatuko zuten sirenak jartzea erabaki zen. "Udaletxean ere jarri zuten sirena bat hegazkin frankistak bonbardatzeko asmoz zetozenean abisatzeko. Sirenak hiru ulu jarraian egiten bazituen arriskua zegoela esan nahi zuen. Ulu luze eta bakarra entzuten zenean, aldiz, arriskua pasa zela esan nahi zuen¹⁵". Herrian zeuden lantegien txirrinak ere bonbardaketak izango zirela ohartarazteko probestu ziren. Azkenik, herriko etxeen beheko soto eta solairuak beti zabalik eta oztoporik gabe uztea proposatu zuten, babesleku moduan erabili zitezen beharrezko momentuetan.

Azken erabaki hau, ordea, denborarekin aldatu egin zen. Izan ere, Bilbon Kotorruelo lantegia bonbardatu zutenean, jendea inguruan zeuden etxeen beheko solairuetan zegoen gotortuta. Bonbardaketaren ondorioz, lantegiaz gain, bere inguruko eraikinak ere erori egin ziren, bertan zegoen jendea azpian harrapatu. Gertaera honen ostean, debekatu egin zen etxeak babesleku moduan erabiltzea, eta horren ordez, babesleku artifizialak eraikitzen hasi ziren. Barakaldon Zaballa kalean egin zuten bat. Kale erdian zegoen soto antzeko bat zen, eta goikaldean lurzakuz zegoen estalia. Eraikitzen bukatu zutenean, bere erresistentzia frogatu nahi izan zuten. Horretarako, une hartan kaletik zihoan gurdi bat hartu eta babeslekuaren goikaldetik pasarazi zuten. Eraikinak, ordea, ez zuten pisua jasan, eta bertan behera erori zen, gidaria zauriturik utziz.

15 Carlos Ibañezen hitzak dira hauek, 2003.urtean egindako elkarrizketa batean esanda.

Azken saioaren porrotaren ostean, jendea lantegietan eta inguruko eraikinetan hasi zen babesten, eraikin hauek ez baitziren bonbardatzaileen helburu izaten, Barakaldon behinik behin. Bestelako lekuak ere hasi ziren babesleku funtzioa betetzen, Labe Garaietako Kooperatibaren eta Santander banketxearen arkupeak, Franko-Belgaren tunela, Arrandi kaleko ortuak kasu. Haez gain, Ekonomia kalean eta *Babcock Wilcoxon* ondoan, Trapagarango bidean, babesleku bana eraiki ziren. Lutxana auzoa eta Barakaldoko aterpe lurperatuak lotzeko eta bateratzeko proiektu bat ere gauzatu zen, baina ez zuten behar bezala egituratu. Loturak paraleloan eraiki zituzten eta, beraz, ez ziren oso babesleku seguruak. Gaur egun Errontegiko zubia dagoen tokian kokatzen zen.

Barakaldo aldi askotan bonbardatu zuten. Luciano Linares eta Paula Landetak¹⁶ aipatzen dute bonbardaketan aurretik *el abuelo*¹⁷ ezizenez ezagutzen zuten hegazkin espiak herriatik iragaten zela datuak biltzeko. Bikote honen hitzetan, "bonbardaketa gehienak Junkers hegazkin alemanekin egin ziren". Lehen aipatu dugun moduan, ordea, bitxienean Barakaldon zeuden enpresa guztiak errespetatu egin zituztela zen. Bazirudien jendea eta euren etxebizitzak bonbardatzea zutela helburu nagusia.

Zubiak ere, estrategikoki duten garrantzia dela eta, hegazkinen jomuga izan ohi ziren usu. Burtzeñako zubia eta baita Zorrotzan zegoen burdinazkoa ere txikitu egin zituzten Itsasadarraren beste aldetik Barakaldora babes bila zetorren jendeari bidea mozteko. Baina azkar bilatu zion herriak irtenbide bat arazoari: zubi zaharrak gabarraz egindako zubiengatik aldatu zituzten.

Jakina denez, bonbardaketan helburu ziren lekuen inguruek ere ondorioak pairatu behar izaten zituzten. Noizean behin Campsa enpresa bonbardatzen zuten, eta aldietako batean bere alboan zegoen itsasontzi bat ondoratu zuten hegazkin frankistek. Aipatu berri dugun Burtzeñako zubia bonbardatu zutenean ere, inguruan janariz beterik zegoen tren bat ere suntsitu zuten.

ELIKADURA

Janariaren ildotik jarraituz, Paula Landetak tren harekiko oroitzen dauzka. Bertara janari eske hurbiltzen zirenetan ez zituen ezer eman ohi. Paula, Lutxana auzoko baserri batean bizi zen. Zeuzkaten behien esnea bildu eta saldu egiten zuten, ahal bezala bizirauteko. EAren kuarter nagusia Lutxanan jarri zutenean, soldaduei euren esnea ematen zieten hauen zerealen truke.

Zaila suertatzen zen gerra garaian janaria eskuratzea. Maria Luz Parte¹⁸ Sestaotarraren esanetan, bere aitak guardiak egiten behar zituen gauero familiako ortua defendatzeko, noizbehinka harpilatu egiten baitzieten. Paula Landetaren aitak ere gau guztia ematen zuen labana eskuan euren ortua lapurrengandik defendatzeko, izan ere, familiaren sustengu garrantzitsuenetakoa baitzen baratza. Bertan lortutako produktuak beste produktu batzuegatik aldatzen zituzten.

Antza denez, Burtzeña aldean sasi muga bat eraiki zuten janari eta produktuen trafikoa kontrolatzeko asmoz, baina jendeak denetarik egiten zuen ordainketa ekiditeko. Martin Lopez Gordobilek¹⁹ gogora dakarkigu egun batean ikusi zue-

16 Luciano Linares 1924an jaio zen eta Paula Landeta 1925ean, biak ere Lutxana auzoan. 1937an Sobietar Batasunera eraman zituzten, bertan elkarrekin ezkonduz. 70. hamarkadan itzuli ziren herrira.

17 *El abuelo*: Horrela deitzen zuten Condor legioak erabiltzen zituen bonbaketari modelo. Bere egiazko izena Junker 52 zen. Hegazkin Alemaniara zen, eta eraikitako lehen modelo 1930 dugu. Durango eta Gernikaren bonbardaketan parte hartu zuten mota honen hegazkinak.

18 Maria Luz Parte Sestaon jaio zen 1925ean. 1937an Ingalaterrako bidea hartu zuen Santurtzioko portutik aterata.

19 Martín López Gordobil 1921eko urtarrilaren 1ean jaio zen Ortuellan. Datu hau oso garrantzitsua da bere istorio pertsonalean, gerran borrokatu beharraz egun bategatik libratu zelako. 1920ko gaizteak izan ziren mobilizatzen azkenak. Martin berez 1920ko abenduaren



Gordexola Batailoa, 1. Cia- Elgezabal, 1936 (Argazkiko gehienak barakaldarrak dira). Iturria: Haitz Aristegi

na: "Egun batean trenetik jaisterakoan, arkume bat lortu zuen gizon bat ikusi nuen. Ez zuenez ez arkumea galdu ez zergarik ordaindu nahi, aberea arroparen azpian sartu eta sasi muga pasatzen saiatu zen. Milizianoak konturatu egin ziren, ordea, eta geldiarazi egin zuten. Arkumea konfiskatu zioten, eta esku hutsik joan behar izan zen".

Gosea zela eta, bai *Euzkadiko*²⁰ gobernuakideek eta baita Barakaldoko udal arduradunek ere gerrate osoan zehar biztanleriari emango zioten janari kopurua zehaztea erabaki zuten, guztiak izan zezaten ahora zer eraman. Egunkariak erakusten digute hobekien nolakoa izan behar zen elikagai bakoitzaren banaketa. Adibidez, 1936ko abenduaren 30ean esnearen banaketa aipatu zuten: bi pertsonak osatutako familientzat litro laurden esne, lau partaideko familientzat litro erdi, sei kideko familientzat hiru litro laurden, zortzikoentzat litro bat eta zortzi pertsonatik gorako familientzat litro eta laurden. Era berean, 1937ko otsailaren 15ean gailera banaketa egin zen: biztanle bakoitzeko 200 gramo, kilo 4 pezetatan zegoelarik. Arraina eta patatak saltzeko era ere arauturik zegoen. Pataten kasuan bereziki, Barakaldoko agintariak herriko biztanleei ahal bezain beste ereiteko eskatu zioten. 1937ko martxoaren 28an egunkarietan argitaratu zen gutxieneko lur sail bat zuten herritarrei patatak lantzeko eskakizun hura. Honez gain, ereiteko era azaltzen zen idatziz, eta amaieran patatak prestatzeko errezeta batzuk aipatzen ziren.

Hilaren 6an abereentzako pentsu banaketa egin zen herrian. Goizeko bederatzietan hasi eta arratsaldeko ordu bata arte E, F eta G hizkiak hasten ziren abizenak zituzten nekazariak eskuratu zezaketen abereentzako bazka. Hurrengo egunean, H, I, J, L, M eta Nz hasitako abizenak zituzten txanda izan zen.

Elikagaiena oso arazo serioa zen euskal agintarientzat. Inor janariarekin iruzur egiten topatzen bazuten, oso zigor gogorra

³¹ jaio zen, baina gurasoak txurrogile zirenez, eta gabon zaharra zenez, ez zuten umea hurrengo egunerarte apuntatu.

²⁰ *Euzkadi*: Hitz hau Sabino Aranak sortu zuen 1896an. Euskal Herria erabili beharrean Euzkadi erabiltzen zuten EAJ alderdiaren sortzaileak. Hitzaren esanahia euskaldunak dauden tokia da. Gerrate garaian Euskal Gobernuak Euzkadiko Gobernuak zuten.

ezarri ziezaioketen. Hasiera batean isunak izaten ziren, baina egindakoa oso larria bazen, gartzelara joanez ere ordaindu zitezkeen. Horren adibide gisa, 1936 urtearen bukaeran Esteban Bengoetxea jaunari 100 pezetetako isuna ezarri zioten elikagaiak ezkutatzeagatik. Ostutako produktuen zerrenda ez zen makala: 54 lata handi eta 74 lata erdi tomate, 16 lata piperbeltz, 16 lata handi eta 155 lata ertain piper eta 10 botila likore. Cesareo Sarachok ere ordaindu egin behar izan zuen bere iruzurra. *Tarin* ezizenez zen ezaguna negozioa Batzar Nagusien kalean zuten harakin hau. Egun batean pisuak markatzen zuena baino haragi gutxiago saldu eta 24 pezetetako isuna ezarri zioten.

ERREPRESIOA GERRATE HASIERAN

Segurtasunari dagokionez, Barakaldo kasu berezia izan zen. Herriko defentsarako erabilitako guardia kopuruari eta lantegien defentsan erabilitako medio guztiei erreparatzea besterik ez dago hori baieztatzeko. Baina gainontzeko herriekiko zuen alde nagusia gudan zehar egondako errepresioa aztertuz antzematen dugu. Euskal Herrian ez zen errepresio neurri bereziki bortitzik hartu, baina Barakaldoko herritar kopurua kontutan hartzen badugu (34.000 inguru) eskuin indarreko hildako gutxi egon ziren gerrate garaian. Ezagunak 23 dira. Ehunekoetan neurtuz gero, biztanleriaren ‰ 0'67 da. Bizkaian izandako errepresioaren datuekin alderatuz, ‰ 1'3, probintziakoa baino baxuagoa da era nabarmen batean.

*Paseo*²¹ moduan ezagunak zirenak ez ziren oso ohikoak izan, ez Bizkaian orokorrean, ez eta zehazki Barakaldon ere. Errepresio forma hau gerratearen hasieran erabili izan zen bereziki. Barakaldon 1936ko uztailean hiru *paseo* gertatu ziren. Lehen gorpua monarkiko batena zen eta uztailearen 22an agertu zen Santurtzi-

²¹ *Paseoak* eskuin indarreko pertsonak atxilotu eta epaiketarik gabe fusilatzean zatan.

rako errepidean. Bigarrena langile galdaragile bat zen, Ekintza Popularreko partaidea, eta Santurtziko Kalero zonaldean agertu zen hilik uztailaren 27an. Azkena Pedro Eliasen gorpua zen, Barakaldoko eskuin monarkikoaren burua, eta Kabiezeseko errepidearen ertzean agertu zen. Azkenengo hau da helburu politikoa izan zezakeen hilketa bakarra. Gainontzekoen kasuan arrazoiak pertsonalagoak zirela dirudi. Bestalde, 1937ko ekainean udaltxeko langile bat hilik agertu zen, baina inongo arrazoi politikorik gabe.

Atxiloketei dagokionez, nahiko ugariak izan zirela esan behar da. Gobernadorearen agindua jarraituz, hamairu pertsona giltzaperatu zituzten. Preso sartu zituzten eguna zehazteke dago, baina badakigu aske utzi zituztela uztailaren 24an, ez baitzegoen euren aurkako frogarik.

Atxilotu haien artean kasu bitxi bat egon zen, Felix Lahuerta Martinena. Felix Lahuerta gudariaren kapilauen kapitaina izateaz gain, 1932 eta 1936 artean Sestaoko Karmengo elizako apaiz-sukaldaria izan zen. Bertan langabezia zuten langileen seme-alabei jatekoa ematen zien. Janaria ahal zuen moduan lortzen

Gehienetan, Barakaldoko atxilotuak Bilbora eramaten zituzten, eta bertan hainbeste preso zeudenez, itsasadarrean zeuden ontzi-presondegietan sartzen zituzten. Horietako bi ontzi bihurtu ziren ezagunen: *Altuna Mendi*²³ eta *Cabo Quilates*²⁴. Hau guzti gertatzen zen bitartean, ordea, egunkariak normaltasuna erakusten zuten eguneroko bizitzan. *Tierra Vasca*²⁵ egunkaria irakurtzen badugu, gerra garaiko Barakaldori buruzko berri asko topatuko ditugu. Gehienek oso garrantzia gutxiko gertakariak aipatzen dituzte: "*Manuel Martinen etxean, Errekatxu kaleko 70 zenbakian, kalean aurkitutako diru-zorro bat dago.*"²⁶, edota "*Udaltzaingoaren koartelan Villalonga kalean kotxe batetik eroritako txapela bat dago bere jabearen zain*".

Bonbardaketek txikitutako eraikinen kopurua eta gerrateak hildakoena handituz zihoazen. Barakaldoko gazte asko hiltzen ari ziren guda zelaietan. Omenaldi gisa, euren lagunek hildakoen bizitzen laburpenak jarri ohi zituzten egunkarietan. 1937ko abenduaren 2an, kasu, gudan erahildako Angel Careaga Ruiz EAEko gudariari buruzko deskribapen bat azaltzen da. Hurrengo egunean EAEko beste gudari baten heriotza argitaratzen

Segurtasunari dagokionez, Barakaldo kasu berezia izan zen. Herriko defentsarako erabilitako medio guztiei erreparatzea besterik ez dago hori baieztatzeko

zuen, bai ezagunei eta baita bere familiakideei ere eskatuz. Bere senitartekoen etxeetan sartzen zen eta hauek gordeak zituzten abereak eskuratzen zituen umeei jaten emateko. Hauxez gain, herriko aberatsei ere eskatzen zien bai janaria eta baita dirua ere. Oso ezaguna da, Lahuertak herritar baten hiletan egin zuena. Felixek hil-hurren zegoenarekin hitz egin zuen zendu aurretik, eta honek, dirudienez, hileta katolikoa egitea eskatu zion. Baina hil zenean senitartekoez hileta zibil bat antolatuta zioten. Hildakoaren gogoia betetzen ez zela ikusita, Lahuerta hiletaren buruan jarri eta errezoak botatzen hasi zen, gizonaren azken hitza bete zedin.

Gerra hasi zenean, Gordexola batailoiko apaiz izendatu zuten Lahuerta. Bere ardura nagusia atxilotuen ongizatea izan zen, nagusiki Frankoren alde altxatutakoena. Beraz, baliteke eskuin aldekoekiko ardura eta lotura horregatik atxilotu izana apaiza. Edonola ere, gudu zelaian zegoelarik harrapatu zuten, eta une hartan, berak zaindutako eskuin indarreko atxilotu ugari lagundu ordez guda zelaian bertan jipoitu zuten. Jokabide honek zeharo lur jota utzi zuen apaiza, eta handik gutxira gaixo jarri eta hil egin zen pena izugarri handi batean murgilduta. Batzuentzat *bele beltza*, eta besteentzat *gorri-separatista* bat izan zenak, nagusiki apaiztat izan zuen beti bere burua.²²

Uztailaren 28an lau atxilotuak esanguratsu egin ziren. Lehenengo Maximo Barcenarena izan zen, Ekintza Popularreko kidea eta gobernu errepublikarraren aurkako ekintzak prestatzen zituena. Gainera, alderdiko barne arauak ezagutzen zituen. Bigarren atxilotua Terenciano Menendez izan zen, hau ere Ekintza Popularreko kidea. Gobernuaren aurkako azpikerietan sartuta omen zegoelako atxilotu zuten. Hirugarrena Angel Basterrechea izan zen, herriko tradizionalismoaren eredu aipagarria. Oso pertsona arriskutsutzat zuten gobernuaren aurka egin zituen ekintzak zirela eta. Laugarren atxilotua Dionisio Arana tradizionalista eta Barakaldoko erreketean buruzagia izan zen. Antza denez, bazuen estatu kolpearen berri gertatu baino lehen, eta gainera, Errepublikara garaiaren hainbat alditan ekin zuen polizien aurka istilu ugari sortuz.

dute, Bernardo Romanelirena, baina kasu honetan aipamena barruko orrialdeetan agertzen da aurrekoan baino era zabalagoan. Bere bizitzaren azken uneak nolakoak izan ziren kontatzen digute: "*Bernardo Romaneli Barakaldokoa zen. Bertan oraindik ere gogoan dute gazte honen solasaldi ironikoa. (...) Berriro hasten da Legutioko pinudietan borroka. Hor zegoen Bernardo, bere metrailadorari helduta. Bera izan zen gure aurrerapenean tiroka hasi zen lehengoa, eta bera izan zen tiroka egin zuen azkena etsaia aurrera egiten saiatu zenean. Horrela hil zuten gure arerioek, metrailadorearen kolpe-kariari itsatsita, gure lurra etsaietatik babestu nahian*".²⁷

BESTELAKO DIRU ITURRIAK

Hilabeteek aurrera egin zuten eta Gabonak iritsi ziren. Ahal zen neurrian gerraz ahaztu ahal izateko asmoz, plan ugari jarri ziren martxan garai hartan. Abenduaren 30ean Barakaldoko Orfeoak Sorozabal musikariaren *Katiuska* zarzuela antzestu zuen. Berrogeita hamar ahotsek osatzen zuten koroa eta hogeita hamar musikarikoak zen orkestra, guztiak ere Teixidor maixuaren zuzendaritzapean. Emakumezko abeslariak Zabalbeascoa eta Arnaiz izan ziren, eta baritonoak Goya eta Ochoa eta tenoreak Fernandez eta Larracochea. Ikuskizuna gizarte-laguntzaren alde egin zen.

23 *Altuna Mendi* Sota eta Aznar konpainiako 14.150 tonoko ontzia zen. Gerra zibila hasterakoan Bilboko portuan zegoenez, ontzi-presondegia moduan erabili zuten. 1936ko irailaren 25ean *Jaime I* itsasuntziko marinelek asaltatu egin zuten *Altuna Mendi*, eta bertan zeuden hainbat preso hil zituzten. Honen ostean, elikagaiak Bilbora eramateko erabili zuten, eta Rotterdamen zegoelarik, Frankori eskaini zizkioten ontziaren zerbitzuak. Ordutik aurrera izena aldatu eta *Aizkori Mendi* deitu zuten. Palos itsamuturrean izandako borrokan parte hartu zuen *Unbe Mendi* ontziarekin batera.

24 *Cabo Quilates* 12.000 tonatako ontzia zen. Guda zibilen zehar presondegia gisa erabili zuten. 1936ko irailaren 25ean, eta ordu eta erdiko bonbardaketa baten ostean, *Jaime I*eko marinelek ontzia asaltatu eta 39 preso hil zituzten. Honen ondorioz, *Jaime I* itsasontziko marinel ugari fusilatuta zituzten.

25 *Tierra Vasca* Eusko Abertzaleen Ekintzaren egunkaria zen. 1933tik 1937ra argitaratu zen Bilbon.

26 BFAA: *Tierra Vasca*: 1936ko abenduak 4.

27 BFAA: *Tierra Vasca*: 1936ko abenduak 3.

22 Felix Lahuerta Martini buruzko informazioa 1977ko urriaren 1ean Deia egunkarian agertutako gutun batetik eta bere senitartekoen bidez lortu dut.



Miranda egoitza, Odol Ospitalea bihurtuta. Guda frontean zauritutako frankistak azaltzen dira. Iturria: Javier Etxebarria

Agate deunaren eguna ospatzeako arazoak egon ziren gerratea zela eta. Izan ere, abesbatzak arriskuan egon zitezkeen gauean abestera ateratzen baziren, ohikoa zen eran, eskuan tortxak ziztuztela ateratzen baitziren. Gau hartan hegazkin frankistaren bat agertuz gero, argiak ikusi eta euren helburuak errazago tiroratu ahalko lituzkete. Honela, alkateak abesbatzei baimena eman zien kantatzera ateratzeko, baina gaueko hamarrek baino lehen etzean egoteko baldintzapean.

Agate Deunarekin batera, beste motatako ikuskizunak antolatatu ziren bai gudarienezko dirua eskuratzeko eta baita soldaduei biztanleriaren elkartasuna adierazteko ere. Euskadiko gobernuak hainbat ekintza antolatu zituen hegazkinak erosteko dirua lortzeko. Honela, 1937ko otsailaren 2an Coliseo Albia antzokian dantzaldi eta musikaldi bat izan zen, Varela monologista ospetsuak ere parte hartu zuelarik. Honez gain, pilota partida ugari antolatu ziren Bizkaia osoan zehar garaiko pilotari onenen parte hartzearekin.

Baina arrakasta gehien izan zuen ikuskizuna 1937ko otsailaren 7an San Mamesen jokaturako futbol partidua izan zen. Partidu horretan Euzko Gudarostea eta EAEko milizianoak izan ziren lehian. Talde bietan zeuden kirolari profesionalak, baina aipagarrienak Athleticen jokalariek ziren. Hainbesteko ikusmina sortu zuenez partiduak, tren bereziak jarri ziren Durangotik Atxuriko geltokira. Ikuskizuna arratsaldeko 15:30ean hasi zen. Agirre lehendakaria ere egon zen, eta bukaeran hitzaldi bat bota zuen 22.000 pertsonen aurrean. EAEko milizianoen taldea osatzen zuten futbolariak hauek izan ziren: Eguia, Euskalduna, Ahedo, Juan Ramon, Kuki Bienzobas, Marculeta, Rejon, Iraragorri, Langara, Bata eta Oyaneder; Euzko Gudarostea osatzen zutenak, ordea, Ispizua, Pablito, Arezo, Cilaurren, Soladrero, Zubieta, Larrondo, Unamuno, Gurruchaga, Mandaluiz eta Gorostiza²⁸. Epaila Iturralde²⁹ jauna izan zen, eta honi laguntzen Saratxo eta Placido

Gonzalez marra epaileak aritu ziren. Partidua EAEko milizianoek irabazi zuten 7 eta 5. Euzko Gudarostekoek errebantxa nahi zutenez, pilota, harri-jasotzaile, irrintzi, aurreku, bertsolari eta dantza txapelketak antolatu ziren, dena hegazkinak erosteko dirua lortzeko.

Gudariak adoretzeko asmoz, 1937ko urtarrilaren 31an Gurutzetako Euzko Abertzaleen Ekintzako Euzko etxeko *Emakumeek*³⁰ ikurrina bat egin ostean EAEko metrailadoreen konpainiako lehen batailoiari bidali zioten. Gurutzetako auzokideak ziren Acha, Etxebarria eta Yañezek zoriontasunez eta harrotasunez jaso zuten oparia. Une hartan ordura arte hildako auzokideak etorri zitzaizkien gogora, Zaso, Gandarias, Hernando eta Viguera.³¹

Bien bitartean, Udaletxean jasotzen zuten dirua kudeatzen hasi ziren. Haziendak eman zizkion 5000 pezetetatik 500 milizianoen eta euren familien alde ireki berri zen kontuan sartzearabaki zuten aho batez. Gainontzekoa, 4.500 pezeta, frankistek eragindako kalteak konpontzeko erabiliko zituzten.

GUDA GOGORTZEN DA

1937ko martxoan hasi zen guda gordintzen Agirrek kontrolatzen zuen zonaldean, Bizkaian, alegia. Mola jeneral monarkikoa eskuindarren buruzagia zen, eta hila horretan egindako hitzaldi batean esan zuen: *“Iparraldean dugun gerratearekin era azkar batean bukatzea erabaki dut. Makurtzen direnei bizitzak eta etxeak erresetatuko dizkiegu, bestelako krimenik egin ez badute behinik behin. Baina berehala gure aurrean makurtzen ez badira, Bizkaia osoa birrinduko dut, erroitik, industriatik hasita. Hori egiteko adina indar ba-*

28 Partiduan aritu ziren guztiak futbol jokalarik profesionalak ziren, gehienek Athletiketan jokatzen zuten: Iraragorri, Bata (barakaldotarra), Ispizua, Cilaurren, Unamuno, Zubieta eta Gorostiza. Besteak Real Madril (Eguia –barakaldotarra– eta Gurruchaga), Bartzelonan (Arezo), Arenasen (Larrondo), Atletico Madril (Marculeta), Sevillan (Euskalduna), Valentzian (Juan Ramon), Oviedon (Langara eta Soladrero), Osasanan (Kuki Bienzobas) eta Barakaldo futbol taldean (Ahedo eta Pablito) jokatzen zuten.

29 Eduardo Iturralde Gorostiza futbol txapelketako lehen mailako epailea izan zen hiru denboralditan zehar.

30 *Emakumeak*: Horrela agertzen da jatorrizko testuan. Emakume Abertzale Batza zuten izena, eta printzipioz EAJrekin erlazioan zuten. 1922an jaio zen elkarte hau, eta 1923an debekatu zuten. Bere garairik garrantzitsuena eta luzeena 1931-1937 tartekoa da. Data honetatik aurrera talde honen ekintzak erbestearen garatu ziren. EAEek ere bere emakume taldea antolatu zuen, eta hori da testuan agertzen dena Gurutzetako Euzko Etxean biltzen zirenak.

31 BFAA: *Tierra Vasca*: 1937ko urtarrilak 31. Berria ematen duen pertsonak ez zuten bere izenarekin sinatu, *“miliciano 1405”* ezizenez baizik.

du³²:³² Momentu hartatik aurrera, Molak bere armada Bizkaiarantz bideratu zuen. Condor legioa airean lagun eta karlista nafarren indarrarekin bat eginda Bizkaia era azkar batean mederatzten saiatu ziren frankistak. Molak 60.000 gizon, 50 bateria eta 120 hegazkin zeuzkan gutxi gora behera. Errepublikaren aldeko iparraldeko zonaldean aldiz, Asturias, Kantabria eta Bizkaian, 50.000 soldadu, 20 bateria, 12 tanke eta 25 hegazkin zahar (alemaniarrekin alderatuta³³) zeuden. Beraz, gudariek ez zuten ia airetiko defentsarik, eta horren ondorioz arerioek erraz suntsitu zitzaizketen euren kanoi eta babeslekuak. Hau dela eta, egunean zehar galdutako zonaldeak gauez berreskuratu behar izaten zituzten, etsaiek hegazkin erabiltzen ez zuten ueña baitzen.

Bonbardaketak gero eta gogorragoak izan ziren arren, Barakaldoren kasuan lantegiek ez zuten sarraskirik pairatu. Gainontzekoan, ordea, izan zuten eraginik

Bonbardaketak gero eta gogorragoak izan ziren arren, lehen aipatu dugun moduan, Barakaldoren kasuan lantegiek ez zuten sarraskirik pairatu. Baina gainontzekoan izan zuten eraginik. Hain bortitzak izan ohi ziren ondorioak, ezen maiatzaren 15eko egunkarietan gauean egiten ziren bonbardaketek bete behar zituzten arauak argitaratu baitziren. Honekin batera, maiatzaren 23an Edmundo Lañak Barakaldoko agintariei *Tierra Vasca* egunkarian publikoki eskatu zien gauez kaleetako argiak itzaltzeko, horrela bonbardariei euren lana zaildu ziezaiaketen. Dena den, neurri hauek guztiak hartuta ere, oso gogorrak izan ziren bonbardaketak, eta Barakaldon 63 hildako egon ziren honen ondorioz guda osoan zehar.

Egoera oso larria zenez, maiatzaren 9an Agirre lehendakariak Montaud³⁴ koronela bere kargutik kendu eta eusko gudarostearen kontrola hartzea erabaki zuen. Bilbo Handia defendatzeko *burdin hesia* deituriko defentsa estatikoa eraiki zen. Proiektuaren lehen ardura-duna atxilotu eta fusilatu egin zuten, informazioa etsaiari pasatu nahi izan ziolako. Bigarren arduradun bat ezarri zuten, Goikoetxea. Burdin hesia hobetzen saiatu zen hau, funtsean nahiko defentsa sistema makala baitzen. Ramon Rubial sozialistaren esanetan, *burdin hesiak* ez zuten ezertarako balio. Lubakiak erabat zuzenak ziren hesiaren hainbat puntutan eta beste hainbatetan eraikitako defentsak airetik oso erraz ikusten ziren. Azken arazo hau areagotu egiten zen, Bilbo ingurua defendatzen zuten hegazkin guztiak suntsiturik baitzeuden, eta beraz, ez zegoen airetik defendatzeko aukerarik. Beraz, nahiko egoera latzean zeuden gudariak burdin hesiaren defentsan. Gauzak honela, Goikoetxeak etsaiekin bat egin eta hesiaren egitura osoaren planuak eman zizkien, Bilbo salduz. Informazio hori guztia eskutan izanda, punteria ona izateko besterik ez zen behar gudariekin akabatzeko.

32 FRASER, 2001: 549.

33 DE ANDRÉS, CUÉLLAR, 2009.

34 Alberto Montaud (1888-1970) Espainiako ejertzitoko koronel bat izan zen. Guda zibila hasi zenean, Madrilgo gobernu errepublikarrak Euskadiko armadaren buruzagi gisa ipintzea erabaki zuen. Bera izan zen burdin hesia antolatatu zuena. Dirudienez, nahiko agintari ezkorra zen, inoiz ez zuten irabaziko zuenik uste, eta horrexegatik bere planteamendu militarrik nahiko kaskarrak izan ohi ziren. Azkenik, 1937ko maiatzaren 9an Agirre lehendakariak ordezkatu zuen armadaren buruzagi gisa.

UMEEN BABESA

Egoera hain latza izanda, eta Durango eta Gernikako bonbardaketen ostean, euskal gobernuak umeak gerratik aldentzea erabaki zuen. Honela, hilabete pare batean Belgika, Britain Handira, Frantzia, Suitza edota Sobietar Batasunera eraman zituzten 13.000 ume. Barakaldetik atera ziren gehienek Sobietar Batasunean aurkitu zuten babes. Luciano Linares eta Paula Landeta Lutxanako auzokideak ditugu honen adibide. 50. hamarkadara arte ezin izan ziren etxera itzuli.

Noizbehinka umeekin erlasionaturik zeuden berriak argitaratzen zituzten egunkarietan, gurasoak informatu eta ahal zen neurrian lasaitzeko. Ekainaren 9an, kasu, Southamptonen zeuden euskal umeen egoera deskribatzen zuen artikulua bat argitaratu zuten. Besteak beste, umeek jaten zutena aipatzen zen: gosaltzeko esne beroa, ogia eta gurina; bazkaltzeko gisatua (okela, barazkiak eta arroza), ogia eta frutak; eta afaltzeko postre bero bat, esnea, ogia, gurina eta gazta. Herrian geratu behar izan zuten gurasoek euren seme-alabek bero jaten zutela jakin zezaketen modu horretan.

LABE GARAIEN BABESA

Bilbo aldea inguratzea lortu aurretik, Mola hegazkin istripu batean hil zen ekainaren 3an, eta Fidel Davilak ordezkatu zuen berehala. Nazionalen martxak beraz ez zuten etenik, eta Alderdi Komunista Bilbo Handia defendatzeko langile zein soldaduen beharrez ohartarazten hasi zen. Honenbestez, bolondresak eskatzen aritu ziren hiriko defentsak indartzeko asmoz. Barakaldon lantegiak babestu ziren nagusiki. Ekainaren 19an Bilbo etsaien eskuetan erori zen inolako defentsarik gabe. Euskadiko gobernuak Agirre lehendakariaren eskutik eskatu zuen Bilbo ez defendatzeko eta guda beste leku batean jarraitzeko. Beste aukerarik ez zutelakoan hartu zuten erabakia: hiria ezin zen barnetik defendatu eta kanpoaldetik defendatzeko sistema etsaien eskuetan zegoen.

Bilbo erortzeko zorian zegoela, Euskadiko gobernuak lantegi guztiak militartu zituen. Bere helburua lantegiak italiarrei birrindu gabe entregatzea zen. Honen trukean Franko behar bezela portatuko zela pentsatzen zuten. Gainera, kontutan hartzekoa da Euskadiko gobernu Vatikanorekin negoziatzen ari zela, bai eurek eta baita Francok komunean zuten erlijiosotasuna oinarri, elizak bitartekari gisa jokatu eta bake ohoretsu bat lortzen lagunduko ziolakoan. Azken uanean eusko gudarosteko gudariak egon ziren lantegiak defendatzen, batez ere ezker indarreko gudariek lantegi hauek suntsitu ez zitzaizten eta era honetan italiarrei lantegiak behar bezala eman ahal izateko.

Barakaldo aldean *Gordexola* batailoia izan zen lantegiak defendatu zituena. 750 gudarik osatzen zuten, eta gehienak barakaldotarrak ziren. EAEko zatiketa batetik agertu ziren, eta talde politiko berri bat eratu zuten Barakaldon EAEk Fronte Popularraren parte hartzea erabaki zuenean. Talde berri hau EAJrekin aliatu zen. Mila afiliatu inguru hartu zuten parte zatiketa honetan. Azkenean Eusko Abertzaleen Ekintza Autonomoa izeneko alderdi berria sortu zuten EAJren laguntzarekin.

Gordexola batailoia ekintza militarren historiala nahiko luzea da. Nafarratetik hasita, Eskuba, Apatamonasterio, Durango, Bizkargi, Sollube eta Gamizetik iragan ziren arerioek ekainaren 12an *burdin hesia* apurtu arte. Honen ostean, Artxanda aldera joan ziren, bertan lau egun iraganez etsaiari bidea oztopatzen. Bataila honetan 200 bat gudari hil ziren. Artxandatik Barakaldo eta Sestao aldera jo zuten. Bertan, ordea, etsipena nagusitu zen. Luis Urkullu batailoiko buruzagiak Euskadiko gobernuaren berri izan zuen. Ahal zuen neurrian Labe Garaiak eta ezkerraldeko gainontzeko lantegiak defendatzeko agindua jaso zuen Urku-



Bide Onera plaza, 1939. Hildako frankisten omenez "Monumentua" eraikitze-lanak hasiak ziren. Iturria: Paramo

Ilu, nahiz eta azken momentuan beharrezkotzat jotzen bazuen, suntsitzeko baimena ere bazuen. Urkulluren eskuetan geratzen zen, beraz, ezkerraldeko industriaren etorkizuna. Honek batailoiko gainontzeko buruzagiekin hitzegin ostean, lantegia italiar Gezi Beltzen eskuetan uztea erabaki zuen, nahiago baitzuten hori lantegiek Frankoren tropen eskuetan bukatzea baino. Italiarrendandik tratu egoki bat jasotzea espero zuten, eta garaile duinak izango zirelakoan zeuden. Frankorengan, ordea, ez zuten halako uste onik, eta porrotaren ondorioak gogorragoak izan zitezkelakoan zeuden. Frankoren mendekuaren beldur ziren bai gudariak eta baita euren buruzagi militar eta politikoak ere.

Dirudienez, beraz, Euskadiko gobernuak Italiarrekin egindako tratuak ez zuten Frankorekin zer ikusirik. Antza denez, Euskadiko Gobernuak Vatikanorekin aritu ondoren, Mussolini berarekin aritu zen bake ohoretsu baten bila, une batez Euskadi Italiarren protektorado bat bihurtzea pentsatzera iritsiz. Frankoren kontroletik aldentzen saiatzea zen helburu behinena. Guzti hau italiarrak Frankoren alderdia baino indartsuagoak zirela uste zutelako bultzatu zuten. Beraz, Italiarrekin egindako tratu guztiak Frankoren kontrolpetik urrun zeudela pentsatu dezakegu.

Gezi Beltzen buruzagia Piazzoni jenerala zen, eta honen eskuetan utzi zituzten Barakaldo eta herrian zeuden lantegi guztiak ekainaren 22an. Azken momentuan, *Gordexolako* gudariak Labe Garaiek etsaiari osorik ematea erabaki zuten. *Gordexola* batailoiarekin batera, STV eta San Andres batailoiko gudariak ere etsaiari errenditu egin zitzaizkien; guztira 2000 soldadu inguru. Erabaki hau nahiko garrantzitsua izan zen, Frankok ezkerraldeko lantegiak guda azkarrago irabazteko erabili baitzituen. Guda ezkerraldean bukatzeaz zela, hainbat lantegietako materiala atera edota bertan deuseztatuta zuten, baina industriaren nukleoa ukitu gabe gelditu zen etorkizunean erabili ahal izateko.

Zonaldea konkistatu ostean, Alemaniako industri ingeniariak egin ziren kargu ezkerraldeko lantegiez. Honen ordainetan, hasierako produkzioa Alemania aldera bidali zuten *Luftwaffek* egindako lana eskertzeko asmoz. Baina lantegiak entregatu eta gero gudariak ez zuten espero zuten tratamendua izan. Francok traidoreekin tratuak egin ezin zela egotziz, armak makurtu zituzten guztiak gartzelaratu zituen.

ERABAKIAREN ONDORIOAK

Hainbat galdera geratzen zen airean Barakaldon gerra zibilean zehar gertatutakoa aztertu ondoren. Erabaki egokia izan al zen lantegiak ez suntsitzea? Batzuen ustez gudari traidoreak izan ziren, haiek hartutako erabakia Frankorentzat onuragarria izan baitzen. Ramon Rubialek beste aukera bat planteatzen du. Bere esanetan, fabrikaren talde elektrogenoa soilik suntsituz gero, Labe Garaiek bi urteko geldialdi bat egin, baina ondoren berriz ere funtzionamenduan jarri ahalko lirakeke. Beste batzuen ustez, ordea, erabaki hau hartu izan balute Espainia II. Mundu Gerran sartzeraren behartuta egongo litzateke; Franko eta Hitler aliatuak zirenez, II. Mundu Gerraren amaieran buruzagi alemaniarra desagertzearekin batera desagertuko zen espainiarra, eta ondorioz, 39 urte iraun zuen diktadura frankista ez litzateke gertatuko, Aliatuen taldeak Errepublikak berrezarriko baitzuen Espainian, gerra zibila baino lehen zegoen ordena berreskuratuz.

Beste batzuen ustez, Euskadiko gobernuak publikoki eta ofizialki lantegiak suntsitzeko ordena eman bazuen ere, izkutuan italiarrekin tratuak egin zituen. Kontutan eduki behar dugu Euskadiko Gobernuak oso kritika gogorrak jasan behar izan zituela guda garaian hartutako erabakiengatik, besteak beste, eskuin aldeko pre-

soak oso ondo tratatu zituelako eta batzuetan aske uzten zituelako Frankoren aldera iragatea ahalbidetuz. Gobernuak uste zuen etsaiari tratamendu ona ematen bazion, honek garaituz gero galdu zutenekin jokabide bera izango zuela. Aski ezaguna da, Bilbo erortzeaz zegoenean, Larrinagako presondegian zeuden presoak Frankoren aldekoen zonaldera pasatzen lagundu zituela. Gainera, Euskadiko lehen gobernuak Europan beste guda handi bat has-tear zela pentsatzen zuten, eta horrenbestez, guda horretako ga-raileekin batera laster etxera itzuliko zirelakoan zeuden. Horrekin ere lotu daiteke Bilbo eta lantegiak ez suntsitzea erabakitzea. Esan behar da, bestalde, lantegiak ez suntsitzeko erabakia beste hainbat lurraldetan ere hartu zela, hala nola, Kantabria eta Asturias aldean, edota Bartzelonan bertan, hiria erortzean zegoelarik ere.

Baina badaude Urkulluk hartutako erabakiarekin bat egiten dutenak ere. Hauen ustean erabaki egokia izan zen herriaren aberastasun iturria zena mantendu eta babestu nahi izatea. Guda irabazi edo galdu, bukatzen zenean barakaldotarrek

nahitaez ekin beharko zioten lanari. Eta beraz, non egingo zuten lan Barakaldoko biztanleek lantegiak suntsiturik bazeu-den? Frankok berriro eraikitzekotan, ezkerrean eraikiko zi-tuen? Erabaki on eta egoki bat hartzeko asmoz Urkullu eta bere gizonak galdera hauek egingo zizkioten euren buruei. Azken batean, ez da ahaztu behar bai Urkullu etabaita bere gizonak ere Barakaldokoak zirela, eta euren erabakiak ikus-puntu sozialetik hartzeko joera zutela militarretik hartu be-harrean. Gudariak ez ziren militarrik, gudan parte hartzen ari ziren zibilak baizik, eta hala ere, ardura izugarriko erabakiak hartu behar izan zituzten.

Egun erraz kritikatu dezakegu une hartan hartu zen erabakia, urte asko pasa baitira, eta bai baitakigu nola bukatu ziren bai guda zibila eta baita II. Mundu Gerra ere. Baina 1937ko ekaina-ren 22ko gau hartan inork ez zekien nolakoa izango zen etorki-zuna. Guda bukatzen zenean lan egiteko fabrikak beharko zituz-tela zen ziur zekiten gauza bakarra.

Antza denez, Euskadiko Gobernuak Vatikanoarekin aritu ondoren, Mussolini berarekin aritu zen bake ohoretsu baten bila, une batez Euskadi Italiarren protektorado bat bihurtzea pentsatzera iritsiz



Artxiboak

BUA: Barakaldoko Udal Agiritegia.

BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxiboa:

- 1936-1937ko *El Liberal* egunkaria.
- 1936-1937ko *Euzkadi* egunkaria.
- 1936-1937ko *Jagi-Jagi* egunkaria.
- 1936-1937ko *La Gaceta del Norte*.
- 1936-1937ko *Tierra Vasca*.

Elkarrizketak

- Carlos Ibañez.
- Ana María Cermeño.
- Paula Landeta.
- Luciano Linares.
- María Luz Parte
- Martín López Gordobil.

Bibliografia

1987 (2. argitalpena): IBAÑEZ, Carlos. *Historias de un pueblo, Baracaldo*, Barakaldo.

1991: IBAÑEZ, Carlos: *Historia general de Baracaldo*, Barakaldo.

1994: IBAÑEZ, Maite: *Monografías de pueblos de Bizkaia. Baracaldo*, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilbo.

1997: CHUECA, Josu; FERNANDEZ, Luis: *Espainiako gerra zibila Euskal Herrian*, Egunkaria, Lasarte-Oria.

1998: ZENBAITEN ARTEAN: *Biblioteca de la guerra civil*, ale ezberdinak, Folio, Bartzelona.

1998 (4. argitalpena): FUSI, Juan Pablo; PALAFOX, Jordi: *España: 1808-1996. El desafío de la modernidad*. Espasa.

2001 (1979, 1997): FRASER, Ronald. *Recuerdalo tu y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*, Crítica, Bartzelona. * Jatorrizko tituloa; Blood of Spain. The experience of civil war, 1936-1939.

2001: GARDE, María Luisa: *ELA a través de dos guerras (1936-1946)*, Pamiela etxea, Iruñea.

2005: BEEVOR, Antony: *La guerra civil española*, Crítica, Barcelona.

2006: CANALES SERRANO, Antonio F.: *Las otras derechas. Derechas y poder local en el País Vasco y Cataluña en el siglo XX*, Marcial Pons Historia, Madrid.

2007: RENOBLES, Eduardo: *ANV, el otro nacionalismo. Historia de Acción Nacionalista Vasca. Eusko Abertzale Ekintza*, Txalaparta, Tafalla.

2009: DE ANDRÉS, Jesús; CUÉLLAR, Jesús: *Guerra civil Española*, Tikal argitaletxea, Madrid.